



Aratosteei
agur

TXIKITTO

2014ko martxo-a-apirila

143



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Koldo
Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako
ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri
eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa
eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

- Amaatxooo! Amaatxoo!!
- Zer gertatzen da?
- Gelan aho haundi deitzen didate.
- Ala, ume, isildu eta ekarri pala, natilla eman behar dizut-eta.

Jaimitoren amak esaten dio Jaimitori:

- Etor zaitetz, ni eta zure aitaren arteko ezkontzaren argazkiak erakutsiko dizkizut!
 - Begira, hau da zure aita!
 - Hori??? -Jaimitok-.
- Eta zein da orduan gurekin bizi den lodikote eta burusoil hori???

Egun batean ume batek amari esan zion:

- Ama, zergatik sartzen duzu pijama almuadaren azpian?
- Ez zimurtzeko.
- Eta zergatik ez duzu amona sartzen?

Semeak aitari:

- Aita, aita! Handitzean zu bezalakoa izan nahi dut!
- Ni bezalako azkarra izateko?
- Ez! Ni bezalako seme bat izateko.

Andereñok Anderri:

- Esaidazu, zelan banatuko zenituzkeen 3 patata hamar lagunen artean?
- Oso erraz!! Purea egiten!!

Mozkor batek emakume sudurluze bati:

- Itsusi! Itsusi!
- Eta emakumeak:
- Mozkorra! Mozkorra!
- Eta mozkorrak:
- Bai! Baina niri biharko pasako zait eta zuri ez!!

Zikoina batek 95 urteko ume bat darama eta umeak esaten dio:

- Onartu beharko duzu galduta zabilzala!!





San Andres ikastetxean "Ate zabalik" eguna ospatu zuten otsailean. Ondo pasatzeko ekintza asko antolatu genituen eta argazkietan ikus dezakezuen moduan oso giro ona egon zen.




Arrateko Andra Mari ikastetxean ekintzaz beterik ibili dira azkenaldian. Matrikula sasoa izan da eta otsailaren 3tik 14ra arte arratsaldean eskola ezagutzeko aukera izan zen. Otsailaren 4an Santa Agoda koplak abesten ibili ziren auzoan. Zein abeslari onak dauden Urki inguruan! Aratosteetan ere primeran pasatu zuten.

La Sallera pianojolea joan zen bisitan martxoaren hasieran eta 5. urtekoek eta 1. eta 2. mailakoek izan zuten musikariak musikarekin egindako jokoetaz gozatzeko aukera. 24tik 27ra 5. mailakoak Barrian izan ziren, gainontzeko ikasleek La Salle Astea ospatzen zuten bitartean. Olinpiadak ere egingo dituzte, apirilaren 4ra arte! Eta azkenik, martxoaren 31tik apirilaren 4ra arte Euskal Astea ospatuko dute.

Juan Antonio Mogel ikastetxean Agenda 21eko Batzordeak saio ederra antolatu zuen otsailaren 20an, Iturburuko ikasle guztientzako. Aurtengo kanpainaren aurkezpena egin zuten: "Elikadura", hain zuzen ere. Horren inguruan sortu diren ekintzak eta albisteak aipatu zituzten. Alde batetik, Argatxa eta Sansaburuko haurrei eginiko bisitaren berri ere eman zuten, eta baita komiki-lehiaketaren azalpena ere. Eta bestetik, ikastolan elikaduraren inguruan eginiko ipuin lehiaketaren irabazleak ere aurkeztu zituzten. Denok janariari buruz asko ikasi dutela diote ikastolatik, eta urtean zehar ere ikasten jarraituko dutela.





1⇒ Zein da euskal autonomi erkidegko iriburua?

2⇒ Euskalherriko egunkari bat

3⇒ Zuria da eta janarietan botatzen da

4⇒ Euria egiten duenean erabiltzen dugu.

5⇒ Eibar taldeko eibarko jokalaririk bakarra

6⇒ Idazteko erabiltzen da.

7⇒ Umeak egunero doaz.

8⇒ Arratzen animalia da.

9⇒ Nola esaten da infamubeste modu batean egiten da.


10⇒ Horrekin hitz egin, musuak eman eta jan egiten da.

11⇒ Zer da oibak jartzen duenera.

HIZKI SALDA

H	X	Y	A	R	E	i	B	A	R	R	U	H
R	H	O	R	A	Z	D	O	N	O	S	T	i
D	O	N	O	S	T	i	A	U	R	i	S	Z
E	i	B	A	G	i	P	U	Z	K	O	A	K
E	L	O	M	A	A	O	M	O	i	M	X	U
O	O	M	B	O	R	R	A	G	O	M	A	N
L	A	M	Z	T	Z	O	L	M	Z	S	L	T
O	K	O	A	F	U	S	K	A	R	A	Z	Z
A	E	K	i	i	i	Z	A	K	K	O	P	A

- Zer egiten dute erleeK?
- Zer da euskara?
- Nola hitz egiten da Euskal Herrian?
- Zein animaliak ipintzen ditu arrautzak?
- ZerK erabaten du arraktra?
- Zein aldeK du kamiseta granate-urdina?
- Zein da gipuzkoako hiriburua?



Nagusixen eta umien artian desbardinttasun haundixak izaten dirala pentsatzen dogu. Baiña zer gertauko zan galdera bardiña egitten badetsagu nagusixari eta umiari? Horrenbesteko aldia egongo ei da?

Zein da gehixen eta gutxien gustatzen jatzun koko-jantzixa?

JUAN CIORDIA, 10 URTE

Gehixen gustatzen jatana zorbixana da. Asko gustatzen jataz zorbixen pelikulak. Ez jataz bape gustatzen printzesen mozorruak, soiñeko larrosak eta makillajia gorrotatzen dittudalako. Asko gustatzen jataz aratostiak, ekartzen dittugun koko-jantzixekin barre mordua egitten dogulako!

SYLBIA ALBERDI, 46 URTE

Txikitan gehixen gustatzen jatan koko-jantzixa txinatarrena zan, trentza luzia eta normalian kalera atara ezin neban soiñeko polit bat jartzen zestelako. Orduandik gaur egunera arte igerri doten aldaketarik haundiña, lehen batez be umiak bakarrik mozorrotzen zirala eta gaur egun familian goizetik danok batera kalera irtetzen garala da. Ez jataz aratostiak larregi gustatzen, galbana emoten destalako, baiña asko disfrutatzen dot nere seme-alabak mozorratzen.



MALEN AGUIRREAMALLOA, 6 URTE

Gehixen gustatzen jatana tigrina da, oso polittak dira eta aurpegixa margotzia asko gustatzen jatalako. 2 urtekin amatxok tigreaz mozorrotu ninduan. Gutxien gustatzen jatana dragoiaren koko-jantzixa da, sua dakalako eta ni ondiok suakin ibiltzeko txikixa naiz. Asko disfrutatzen dot aratostietan, herritik dantzan desfilia egittera urtetzen garalako.

SUSANA MAGUNAZELAIA, 41 URTE

Gehixen gustatzen jatana paillazuarena da, iñork ez zaittulako ezagutzen eta oso koloretsua dalako. Lehen trapu edo ohialekin egindako jantzixak ziran eta oin gehixenak erosittakuak. Asko gustatzen jataz aratostiak kuadrillan koko-jantzitta ibiltzen garalako.





ARATOSTEAK 2014













ANBOTOKO SORGINA

Behin batean neska gazte bat iturrira joan zen ur freskoa hartzera. Halako batean, iturriaren atzetik emakume bat ateratu zen. Emakumea oso itsusia zen: sudur luzea, buruan kapela eta eskuan erratza. Neskak, beldurtuta, galdetu zion:

- "Zein zara zu? Zer nahi duzu?"
- "Ni Anbotoko sorgina naiz –erantzun zion- eta zu eramatera etorri naiz.

Orduan, neska harrapatu, hanka artean erratza ipini eta hegatu joan ziren biak. Berehalaxe iritsi ziren kobazulora. Han dena ilun-ilun zegoen eta neska beldurtuta negarrez hasi zen. Baina egun batzuk pasa eta gero, pozik zegoen: sorginak soineko polit bat eman zion eta jantzi egin zuen. Ispilu bat hartu eta begiratu zuen: zein aurpegi polita! Janaria ere nahi zuen guztia ematen zion. Baina oraindik sekreto handi bat zuen neskarentzat. Egund batean, belarrez jarabea egiten irakatsi zion. Beste egun batean sorginak esan zion neskari:

- "Gaur gurasoan etxera joango zara". Baina neskak erantzun zion:
- "Ez, ez dut nahi; pozik nago hemen".

Belarrak hartu eta jarabea prestatu zuten etxera eramateko. Etxera joan zen eta etxean aita, ama eta amona bakarrik; musu bana eman eta aitona? Non dago aitona?



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...

Aitona ohean zegoen, gaixorik. Orduan, ateratu zuten sorginaren jarabea eta aitona edan egin zuen. Berehala sendatu zen. Gero, kontatu zuten sorginarekin egon zela eta bere laguna zela. Orain denak daude pozik etxean: neska etorri da eta aitona sendatu!

ZUHURRA ETA IZARRAK

B

azen behin gizon aberats bat. Oso aberatsa. Eta zuhurra, aberatsa bezain zuhurra, zekena. Esku zabalaz izatea zer zen ere ez zekien hark. Diru guztia giltzapean gordetzen zuen.



Behin batean lagun bat joan zitzaion diru eske:

- "Aizu, premia larrian nago eta... utzidazu diru apur bat, mesedez. Ahal bezain laster itzuliko dizut".

Laguna zen eta aberatsak ezin ezetzik esan. Hala ere, baldintza bat jarri zion:

- "Dirua utziko dizut... gau osoa egoten bazara dorrean biluzik".

Negua zen eta haize fina zebilen. Hala eta guztiz ere, lagunak onartu egin zuen. Dirua behar zuen.

Gizajoa! Ia bertan gelditu zen, baina tira, froga gainditu zuen. Biharamunean diruaren bila joan zen.

- "Zer moduz?", galdetu zion aberatsak.

- "Uff! Oso gogorra izan da. Ezin izan dut bat ere lorik egin. Ia-ia izar guztiak zenbatzeko aukera izan dut".

- "Nola? Izartuta egon da? Orduan izarren berotan egon zara. Ziria sartu didazu. Gure tratuak ez du balio. Ez dizut dirurik lagako".

Hurrengo egunean lagunak aberatsa bazkaltzera gonbidatu zuen. Hark hartu zuen poza! Bazkaria doan. Orain ere dirua aurreratzeko bidea... Baina mahaietan eseri eta platerak hutsik.

- "Banoa ea arkumea prest dagoen ikustera", esan zuen lagunak eta sukaldera abiatu zen.


Aberatsa atzetik segika. Sukaldean zer aurkituko eta arkumea burduntzian bai, baina beheko sutatik urrun.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...

- "Aizu, arkumea sutan jartzen ez baduzu jai dago! Burduntzian jartzea ez da nahikoa!", bota zuen gizon zuhurrak.

- "Zer diozu?" -galdetu zion lagunak- "Izarrek, hain urrun egonda ere, berotu banaute, zergatik ez du ba su hark arkume hau erreko?".

Gizon zuhurra mutu geratu zen.



zu margolari!